



EKINTZA SINDIKALEKO INFORMEA

2025/2026

Informea

LAB⁷
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

SARRERA

Euskal Herria langileen antolakuntza eta borrokarako espazio propioa eta bizia da. Urtez urte jasotzen eta aztertzen ditugun datuek argi uzten dute errealitate hori: gatazkak sortu eta eraldatzen dira. Batzuk itxi eta beste batzuk pizten diren heinean, langile borrokak indarrean jarraitzen du. Langileriak erakutsi du prest dagoela bere eskubideak defendatzeko, eta borroka horiek lan-esparru hutsetik harago doaz. Izan ere, langileek ulertzen dute beren aldarrikapena ez dela soilik enpleguari lotutakoa. Langile mugimenduaren ardatz bihurtu dira zerbitzu publiko duinen aldeko borroka, zaintzaren aldekoa, gerren aurkako posizionamendu irmoa, gutxieneko soldata propioaren aldeko eta prekaritatearen aurkako jarrera eta eskubide sozialen defentsa, baita etxebizitza eskubidearena ere.

Testuinguru horretan, **2025-2026 ikasturtean nabarmendu den dinamiketako bat, zalantzarik gabe, gutxieneko soldata propioaren aldekoa** izan da, aurreko ikasturtean hasitako ildotik. Funtsezkoa da tokiko errealitatera egokitutako gutxieneko soldata duina, soldata arrakalak txikitzeko, pobrezia eta prekaritatea murrizteko eta aberastasunaren banaketa bidezkoagoa sustatzeko. Horregatik aldarrikatzen dugu Euskal Herrian bertan gure gutxieneko soldata erabakitzeko eskubidea, lan eta bizi baldintza duinagoak bermatzeko tresna baita. Hala eskatu genuen 2026ko martxoaren 17ko greba orokorrean, eta aldarrikapen horrek leku nagusia izaten jarraituko du etorkizuneko borroketan ere.

Euskal Herriak aurtengo ikasturtean, beste behin ere, erakutsi du elkartasun internazionalista praktikatzeko prest dagoela, Palestinaren aldeko lanuzte eta mobilizazio masiboek erakutsi zuten bezala. Israel eragiten ari den genozidioaren salaketak eta palestinar herriarekin erakutsitako elkartasunak muga guztiak gainditu zituen, eta LABek, lanuztean aktiboki parte hartzeaz gain, Israelekin harreman komertzialak eteteko ildoak lantzen jarraitu du.

Bestalde, beste hainbat esparrutan ere langile borroka garrantzitsuak izan ditugu lan eta bizi baldintza duinen alde. Hainbat borrokak hartu dute indarra: zaintza eta ikuspegi feministak, zerbitzu publikoen defentsak, euskaraz lan egin eta bizitzeko eskubideak, negoziazio kolektiborako esparru propioaren aldarriak, etxebizitza eskubidearen defentsak, lan osasunarenak eta arrazakeriaren aurkako jarrera aktiboak, besteak beste.

Mobilizazioak ez dira izan soilik baldintzak hobetzeko; patronalaren erasoan aurrean ere erantzun antolatua emandugu. Ikasturtean zehar kaleratzeak, itxierak, eskubideen murrizketak, jazarpen sindikala, diskriminazioak eta lan istripu larriak pairatu ditugu, baina langileak ez dira geldirik geratu.

Gaur egungo testuinguru sozioekonomikoak erronka handiak dakartzan arren, aukera berriak ere irekitzen ditu. Datorren ikasturterako oinarriak ezarri dira, eta LABek bere ibilbideari jarraipena emango dio, orain arte bezala, langileen aldeko borrokan tinko.

ONDORIOAK

1.- Euskal langileriak antolakuntza eta borroka sindikalen alde egin du

Ikasturte honetan grebak, lanuzteak eta mobilizazioak izan dira protagonista. Urriaren 15ean Palestinako herriarekin elkartasunez eta genozidioa salatzeako deitutako lanuzteek babes zabala jaso zuten; martxoaren 17an, berriz, gutxieneko soldata propioaren aldeko greba orokorra arrakastatsua izan zen (ikus hurrengo puntua). Izaera desberdineko deialdiak izan arren, LABen presentzia, inplikazioa eta antolakuntza erabakigarriak izan dira mobilizazioen arrakastarako eta langileen aldarrikapenak agenda politiko eta sozialean kokatzeko. Era berean, lan zentroetako borrokek indarrean jarraitu dute.

2.- Gutxieneko soldata propioaren borrokak jendarte osoaren babesa lortu du

Gutxieneko soldata propioaren aldeko borrokak eta mobilizazioek, bereziki greba orokorrak, inflexio puntua ekarri dute eztabaida sozial, sindikal eta politikoan. Aldarrikapenak agenda politiko eta sozialean zentralitatea irabazi du, eta posizio sindikalak mugiarazi ditu. Aldi berean, jendartean zabaldu da 1.500 eurotik beherako soldatak onartezinak direla, soldaten inguruko zoru sozial berria ezarriz. Horrek bereziki eragiten die prekarietatea modu gurutzatuan pairatzen duten kolektiboei —gazteei, emakumeei, langile migratu eta arrazializatuak nahiz enplegu zentro berezietako langileei—, haien borroketarako baldintza hobeak eta exijentzia handiagoak ezarriz.

3.- Lan Harremanetarako Euskal Esparrua indartzen jarraitu dugu

Patronalen negoziazio kolektiboa zentralizatzeko saiakeren aurrean, LABek bertako hitzarmenen eta Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko apustua sendotu du. Bertako negoziazioak lan eta bizi baldintzak hobetzeko tresna eraginkorra dira; bereziki, prekaritate handiena pairatzen duten sektoreetan. Estatalizatutako sektore asko feminizatuak edo arrazializatuak dira, eta bertako hitzarmenek eskubideak eta soldatak hobetzea ahalbidetu dute. Arabako eta Nafarroako zahar egoitzetan, EAEko kolektibitateetan edo Bizkaiko grafikagintzan lortutako hitzarmenek norabide hori berretsi eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua indartu dute.

4. - Grebek eta mobilizazioek enpleguaren defentsa markatu dute industrian; premiazkoa da langileak protagonista izango dituen trantsizio ekosozial justua

Industrian enpleguaren defentsak lehentasun sindikala izaten jarraitu du. Kaleratzeen, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteen eta itxieren aurrean, langileek grebaren eta mobilizazioaren bidez erantzun dute, antolakuntza kolektiboaren indarra berretsiz. Hala ere, gatazka bakoitzari banan-banan erantzutea ez da nahikoa: egungo egoerak industria ereduaren norabide aldaketa eskatzen du. Horretarako, ezinbestekoa da bidezko trantsizio ekosoziala bermatuko duen industria politika berri bat, jarduera ekonomikoa eta enplegua planifikazio publikoaren bidez babestuko dituen, deslokalizazioari eta espekulazioari mugak jarriko dizkiona eta langileen beharrak erdigunean kokatuko dituen. LABek norabide horretan lanean eta borrokan jarraituko du, enplegu duina eta industria sare sendoa bermatzeko.

5. - Sindikalismo feministarekin batera, sindikalismo antirrazista praktikara eraman, eta arrazismo laboralaren kontrako borroka indartu dugu

LABen sindikalismo feministak emaitza nabarmenak lortu ditu; bereziki, sektore feminizatuetan. Administrazio publikoaren azpikontratetan gatazken itxiera-tasa %15,79tik %46ra igo da, zaintza eremuan %20tik %38,89ra, eta sektore feminizatu guztiak aintzat hartuz %24,56tik %38,89ra. Datu horiek erakusten dute borroka sindikala eraginkorra dela, lan baldintzak hobetzeaz gain, langileen antolakuntza, ahalduntzea eta etorkizuneko borroketarako indarra sendotzeko. Aldi berean, sindikalismo antirrazistan urrats esanguratsuak egin ditugu langile migratuen presentzia handiko sektoreetan, arrazismo laborala salatuz eta ekintza sindikalaren bidez aurre eginez. Borroka horiek langile migratuen antolakuntza, parte hartzea eta ahalduntzea indartu dituzte, sindikatuan duten presentzia eta protagonismoa handituz. Horrenbestez, LABek sindikalismo feminista eta antirrazista eraginkor eta eraldatzaile baten aldeko apustua berresten du.

6. - Ekintza sindikala etxebizitzaren eremura eraman, eta lehen garaipenak lortu ditugu

Frogatu dugu eraginkorra dela ekintza sindikala etxebizitzaren eremura zabaltzeko egindako apustua. Lehen garaipenak berretsi dute langileak etxebizitzaren gatazken aurrean antolatzeak emaitzak ematen dituela: etxegabetzeak geldiarazi, kontratu-baldintzak hobetu eta bidegabeki kobratutako dirua berreskuratu da. Aldi

berean, lehen garaipen esanguratsuak lortu ditugu; hala nola, Nafarroako Etxebizitza Legean egindako azken moldaketa, alokairuan diren babestutako etxebizitzaren estaldura betierekoa izatea lortuz. Esperientzia horrek agerian utzi du banakako arazoei erantzun kolektiboa ematea dela etxebizitzaren negozioari aurre egiteko eta etxebizitza eskubidea benetan bermatzeko biderik eraginkorrena. Horregatik, berresten dugu etxebizitzaren eremuan sindikalismoa indartzeko konpromisoa, langileen bizi baldintzak defendatzeko eta etxebizitza eskubidearen borrokan sakontzeko.

2025/2026 KURTSOA DATUETAN

- > **180 borroka** sustatu ditugu
- > **86 borrokatan greba** erabili da.
- > **Sektoreko borrokak 50 izan dira; horietatik 23, sektore feminizatueta, eta 4, sektore arrazializatueta.**
- > **Enpresa mailako borrokak 124 izan dira; 22 feminizatuak, eta 6, arrazializatuak.**
- > **Etxebizitzaren eremuan 6 gatazka kolektibo bultzatu ditugu.**

GATAZKAK SEKTOREKA	INDUSTRIA	ZERBITZU PRIBATUAK	ZERBITZU PUBLIKOAK	ETXEBIZITZA	GUZTIRA
Orokorrean	53	65	56	6	180
Feminizatuak	1	14	30		45
Arrazializatuak	0	9	2		11
Grebak	41	20	25		86
Itxita	31	27	17	2	77

OROKORREAN, HONAKOAK IZAN DIRA MOBILIZATZEKO GAINAGUSIAK LAN-ZENTROETAN:

	Negoiazio kolektiboa	Kaleratzeak, ERTE eta itxierak	Bestelako erasoak
Federazio pribatua	39	3	20
Federazio pribatua enpresak	26	3	13
Federazio pribatua sektoreak	13	0	7
Federazio publikoa	27	2	10
Federazio publikoa enpresak	14	2	3
Federazio publikoa sektoreak	13	0	7
Industria	27	16	10
Industria enpresak	20	16	10
Industria sektoreak	7	0	0

Industrian, erasoen aurkako borroka izan da borrokarik azpimarragarriena. Izan ere, aktibaturiko borroken %50 erasoei aurre egiteko borroka izan dira, eta horietatik %60 kaleratzeei, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteei edo itxierei aurre egiteko. Industriako langileek, beraz, borrokaren bidez erantzun diete patronalaren erasoei, eta kasu batzuetan, gainera, patronala behartu dute atzera egitera.

Borroka horiek, gainera, garrantzitsuak dira ekarri dituzten bestelako ondorioengatik ere: langileen antolakuntza eta ahalduntzea indartu dute, eta etorkizuneko borroketarako posizio hobean kokatu gaituzte. Borrokek langileen antolakuntzan eta ahalduntzean laguntzen dute, batetik, eta, bestetik, patronalak mezu argia jaso du: eraso berrien aurrean langileek borrokaren bidez erantzungo dute.

Zerbitzu pribatuetan, negozioazio kolektiboa eta lan baldintzen hobekuntza izan dira borroka aktibatzeak gai nagusia. Sektore horietako langileek argi dute: lan hitzarmen duinak behar dituzte, lan baldintza egokiak bermatzeko. Horregatik, patronalaren blokeo eta inposizio saiakeren aurrean, mobilizazioak eta grebak bultzatu dituzte, eta horien bidez lortzen ari dira negozioazioak desblokeatzea eta lan baldintzak hobetzea. Lorpenak izan dituzten borroken artean daude, besteak beste, EAEko jangeletako langileak (kudeaketa zuzenekoak eta pribatukoak). Horiez gain, borrokan jarraitzen dute beste sektore batzuek: Bizkaiko garbiketakoek, Nafarroako merkantzien garraiokoek edo EAE eta Nafarroako teknikariek, esaterako.

Zerbitzu publikoetan langileen aldarri nagusiak izan dira negozioazio kolektiboa eta lan baldintzak eta zerbitzua hobetzea. Langileek argi dute: lan baldintza egokiak behar dira kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko. Horregatik bultzatu dituzte greba eta mobilizazioak, administrazioek patronal pribatuak baino mugitzeko gaitasun gutxiago erakutsi duten arren. Administrazio publikoaren barruan borroka aktibatu arren, itxi ditugun gatazken portzentajea %12,90koa da soilik, batezbestekoa %43,10koa den arren.

Ez hori bakarrik: azken urteetan kezkaz bizi dugu administrazioak adostutakoa bete dezan borroka aktibatu behar izatea. Hezkuntzan eta Nafarroako Osasunbidean langileek mobilizazioak egin dituzte adostutako akordioak bete daitezen. Erasoa ere izan dira, eta horien artean euskararen aurkako oldarraldia nabarmendu behar dugu. Euskararen normalizazioaren aurkako epaiak eta erabakiak bata bestearen atzetik etorri dira, eta langileek erantzun egin dute. Nabarmenezkoa da maiatzaren 9an sindikatuok deituta eginiko manifestazio jendetsua, lan munduan euskaldunon eskubideen defentsan.

LAN ZENTROETAKO BORROKEN DATUAK HERRIALDEKA:

Bizkaian aktibatu da gatazka gehien, ondoko taulan ikusten denez. Edonola ere, langileria aktibo kopuruarekin alderatuz, Araba da, proportzioan, gatazka eta greba gehien izan dituen herrialdea.

	OROKORREAN	FEMINIZATUA	ARRAZIALIZATUA	GREBAK	ITXITA
ARABA	26	7	1	18	15
Sektore	8	4	1	2	4
Enpresa	18	3	0	16	11
BIZKAIA	60	8	3	30	32
Sektore	8	2	1	3	2
Enpresa	52	6	2	27	30
GIPUZKOA	29	6	4	13	12
Sektore	3	1	1	1	0
Enpresa	26	5	3	12	12

	OROKORREAN	FEMINIZATUA	ARRAZIALIZA- TUA	GREBAK	ITXITA
NAFARROA	33	7	1	13	9
Sektore	16	2	0	4	2
Enpresa	17	5	1	9	7
EAE	25	14	1	9	5
Sektore	15	11	1	6	3
Enpresa	10	3	0	3	2
HEH	1	0	0	1	1
Sektore	0	0	0	0	0
Enpresa	1	0	0	1	1

ZAINITZA SEKTOREAK, SEKTORE FEMINIZATUAK, LANGILE MIGRATU ETA ARRAZIALIZATUEN PRESENTZIA ALTUKOAK ETA AZPIKONTRATAK AZTERGAI:

	BORROKAK	GREBAK	ITXITA
AZPIKONTRATA/ KONTZERTATU	50	23	%46,00
Publikoa zuzenean/ enpresa publikoak	31	15	%48,39
Zaintza eremua	18	7	%38,89
S. FEMINIZATUA	45	13	%28,89
S. Arrazializatua	11	2	%18,18
Orokorra	174	86	%49,43

Azken urteetan zaintza sektoreen, sektore feminizatuen, zerbitzu publikoen eta azpikontraten bilakaera aztertu dugu, eta aurren, lehen aldiz, sektore arrazializatuena ere bai. Azterketa horrek erakutsi digu, azken urteetan sektore horietan borroka gero eta indartsuagoak aktibatu diren arren, patronala —publikoa zein pribatua— mugiarazteko gatazka luzeago eta gogorragoak behar izan direla. Ondorioz, hitzarmenen itxiera tasak urte luzez apalagoak izan dira.

Datu horiek bi ondorio nagusi uzten dituzte agerian. Alde batetik, erakunde publikoak kudeatzen dituzten alderdiek balio eskasa ematen diote langileen ahotsari. Izan ere, zerbitzu publikoetako langileen borrokek administrazioen jardunean aldaketak eragin badituzte ere, haien joera nagusia alde bakarreko erabakiak hartzea izan da, baita langileen lan eskubideei dagozkien auzietan ere. Bestetik, patronal pribatuak ere balio eskasa ematen die zaintza sektoreei, sektore feminizatuari eta azpikontrata bidez egiten diren lanari.

Hala ere, aurtengo datuek bilakaera positiboa ere erakusten dute. Zerbitzua zuzenean administrazio publikoek ematen duten eremuetan jarrera blokeatzaileek bere horretan jarraitzen dute, eta, mobilizazio handiak egin arren, gatazka asko irekita daude oraindik. Aldiz, zaintza sektoreetan eta azpikontratetan hobekuntza nabarmena lortu da: zaintzan hitzarmenen itxiera tasa ia azko %20tik aurtengo %38,9ra igo da, eta azpikontratetan %15,79tik %46ra, batezbestekoaren gainetik. Sektore feminizatuaren ere aurrerapausoak egin dira, nahiz eta igoera apalagoa izan (%24,56tik %28,89ra), eta horrek agerian uzten du emakumeen* lanari patronalak oraindik balio txikiagoa ematen diola.

Nolanahi ere, gatazka baten balantzea ez da soilik hitzarmen bat ixtearen edo aldarrikapen guztiak lortzearen arabera neurtzen. Borroka askotan, helburu guztiak erdietsi ez badira ere, langileen antolakuntza sendotu da, subjektu kolektibo gisa ahalduntzea lortu da eta etorkizuneko borroketarako indarra metatu da. Eta hori ere borroka irabaztea da: langileak antolatzea, kontzientzia indartzea eta lan zentroetan indar harreman berriak eraikitzea.

ETXEBIZITZAREN EREMUAREN ERE EKINTZA SINDIKALA GARATU DUGU.

Bada denbora bat LAB etxebizitza sindikalismoa egiten hasi zenetik. Hasiera batean proiektu pilotu gisa hasi genuena Euskal Herriko hainbat txokotara zabaltzea lortu dugu. Etxebizitza sindikalismoa gatazka kolektiboaren bidez edo aholkularitza kolektiboaren bidez garatu dugu.

Gatazka kolektiboak

Gatazka kolektiboak dira etxebizitza eraikin berean edota jabego edo higiezinaren agentzia berari aurre egin behar dieten hainbat bizilagunek elkarrekin antolatzen dituzten gatazkak. Azken urte honetan horrelako hainbat gatazka ireki ditu sindikatuak, maizterrekin batera antolatuz eta horien araberrako sail sindikalak sortuz.

Bilbon, hainbat eraikinetan, Mazabi Gestión de Patrimonios enpresak beheko solairuak erabilera turistikorako bideratu nahi izan zituen, baina auzokideen borrokari esker gatazka garaipenez itxi zen eta erabilera turistikoa bertan behera geratu zen. Gasteizko Salburuan, Vitalquiler/Adalquiler S.L. Adania enpresaren babes ofizialeko 208 etxebizitzaren kalifikazioa galtzeko arriskuaren aurrean, mobilizazioek jarraitzen dute. Antzeko egoerak bizi dira Iruñean: Ezkabako babes ofizialeko 190 etxebizitzaren kasuan, Errotabidea SL eta Catella Groupen aurkako borroka garaipena ekarri zuen, etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra bermatuz; aldiz, Etxebakoitz, Sanduzelai, Arrotxapea, Buztintxuri eta Artikako 507 etxebizitzaren kasuan, Testa Residencial (Blackstone) enpresaren aurrean gatazkak zabalik jarraitzen du, eta maizterren antolakuntza indartzen ari da. Donostiako Benta Berriko 510 babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan ere Testa Residencialen aurkako borroka irekita dago; bertako alokairu elkarteak urteak daramatza antolatuta, eta LABeko afiliatuak ere parte hartzen dute antolakuntza horretan. Azkenik, Bilbo Handian eta Gasteizen, Alquiler Seguro enpresak kudeatzen dituen 500 etxebizitzaren inguruan alokairu greba antolatzen ari dira maizterrek, higiezin agentziaren kobrantza ilegalak, abusuzko praktikak eta inpunitatea amaitzeko helburuarekin. Kasu guztiek erakusten dute maizterren antolakuntza gero eta sendoagoa dela sindikatuaren, eta, etxebizitza eskubidearen defentsan, borroka kolektiboak emaitza esanguratsuak lortzeko gaitasuna duela.

Aholkularitza kolektiboa

Etxebizitzaren arazoa ez da norberak bizi duen arazo partikularra, egiturazkoa baizik: Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Eibarren eta Donostian egiten dugun aholkularitza kolektiboak erakusten du gatazkek antzeko ezaugarriak dituztela, etxe jabe handien, higiezinaren eta jabetza-aholkularien logikak bereganatu dituzten etxe jabe txikien jardunaren ondorioz. Gatazken erdietan maizter migratuak izan dira protagonista, eta horietako askok, bereziki logela alokatzen zutenek, eroldarekin lotutako oztopoak ere pairatu dituzte. Era berean, gatazken %50etan emakumeak izan dira protagonista. Kasuen %60tan etxe jabe partikularrekin izan dira gatazkak, sarritan higiezinaren edo finka administratzaileen praktikek bultzatuta; gainerako %40 banketxe, etxe jabe handi edo funts putreekin izan da. Ohikoenak izan dira fidantza ez itzultzea edo mantentze-lanei dagozkien gastuak beren gain ez hartzea, eta, batez ere, alokairua ez berritzea eta kaleratzeak, gehienetan errenta igotzeko helburuarekin. Azken kasu horietan, bederatzi gatazkatan maizterrek #GeratzenGara estrategia sindikala baliatu dute, etxean jarraituz alokairua ordaintzen, eta negoziazioaren bidez etxegabetzea geldiarazteko akordioak lortu dute.

KURTSOEN ARTEKO KONPARAKETA

	2018/2019		2021/2022		2022/2023		2023/2024		2024/2025		2025/2026	
	GREBAK		GREBAK		GREBAK		GREBAK		GREBAK		GREBAK	
Borroka kopurua	127	80	171	93	204	108	190	84	204	75	180	86
Sektore feminizatuak	29		48		44		38		57		45	
Sektore mailakoak	18		31		54		35		48	15	50	
Sektorekoak feminizatuak	7		18		21		18		28		23	
Enpresa mailakoak	109		140		150		155		156	60	124	
Enpresakoak Feminizaztuak	22		30		23		20		29		22	

AURTENGO IKASTURTEAN BORROKA NAGUSIAK

GUTXIENEO SOLDATA PROPIOA

Urteak daramatzagu gutxieneko soldata propioaren aldarrikapena gure agendan kokatzen. Azken bi ikasturteetan, Hego Euskal Herriko beste sindikatu batzuekin batera, aldarrikapen horri beste bultzada bat eman diogu, dinamikaren inflexio puntu gisa greba orokorra kokatuz. Borroka hori, burujabetza ariketa garrantzitsua izateaz gain, tresna estrategiko eta eraginkor gisa ulertu dugu, soldata arrakalak murrizteko, pobrezia eta prekarietateari aurre egiteko eta aberastasunaren banaketa justuago bat lortzeko.

Gainera, badakigu soldatarik baxuenak jasotzen eta 1.500 euro azpiko soldatak dituzten sektoreak neurri handi batean feminizatuak direla eta langile migratu, arrazializatuen eta gazteen presentzia handia dutela. Horregatik, gutxieneko soldata propioaren aldeko borroka ezinbesteko tresna da genero, jatorri, arrazializazio, aniztasun funtzional eta adin ardatzek eragiten dituzten desberdinkeria estrukturalak murrizteko. Izan ere, 1.500 eurotik beherako soldatak dituzten jarduera askotan emakumeek, migratutako pertsonak, arrazializatutako langileek eta gazteek pairatzen dituzte modu bereziki gogorrean prekaritatea eta pobrezia arriskua.

Helburua honakoa da: Euskal Herriko egoera sozioekonomikoari egokitzen zaion gutxieneko soldata propio bat ezarri, lan baldintzak hemen erabakitzea, herritarren lan eta bizi baldintzak duintzeko. Modu horretan, bereziki, emakumeen, migratutako eta arrazializatutako langileen, aniztasun funtzionala dutenen zein gazteen lanaren aitortza eta lan eta bizi baldintzen hobekuntza lortu nahi ditugu, egiturazkoak diren arrakalei aurre eginez.

Bi patronalek (Confebask eta CEN) eta gobernuetan dauden alderdi politikoek (EAJ, PSE eta PSN) lantzen ari ginen bi bideak blokeatu ondoren, euskal jendarteak greba orokor eredugarri bat egin zuen. Lan zentroak gelditu eta milaka langile atera ziren mobilizazioetara gutxieneko soldata propio baten alde. Grebak, gainera, posizio politiko eta sindikalak mugitzeaz gain hainbat sektoreetako borrokak indartu ditu, eta sektore batzuetan gutxieneko 1.500 euroko soldatara iristea lortu da; Bizkaiko grafikagintzan edo Nafarroako kiroldegi eta zahar-egoitzetan, esaterako.

Borroka horiek hurrengo faserako oinarria ezarri dute. LABek ez du etsiko bertako langile guztiek gutxieneko soldata propio eta duina lortu arte.

LANGILE MIGRATU ETA ARRAZIALIZATUAK ERDIGUNEAN: SINDIKALISMO ANTIRRAZISTA PRAKTIKARA ERAMATEN

X.Biltzar Nagusiaz (2022) geroztik sindikalismo antirrazista egiteko oinarriak ezartzen aritu gara, eta arrazismo laborala identifikatu eta aurre egiteko borroka aktibatu ditugu.

Langile migratu eta arrazializatuen presentzia bereziki handia da enpresa eta sektore jakin batzuetan, eta, aldi berean, lan baldintza okerrenak, eskubideen urraketa eta antolakuntza sindikala oztopatzeko estrategiak nabarmenak dira eremu horietan. Adibide ugari izan ditugu: Estaños Matiena, Bizkaiko etxebizitza komunitarioak, KFC eta Gipuzkoako Beti Aingeru arrantzontziko gatazka, besteak beste.

Estaños Matienaren kasuan, LABek urteetan salatu ditu lan osasunaren arloko urraketa larriak eta prebentzio neurriak sistematikoki urratzen direla. Enpresak bereziki langile migratu eta prekarizatuak erabiltzen ditu arrisku handieneko lanetarako, eta hainbat salaketa aurkeztu ditugu Osalanen eta Lan Ikuskaritzan. 2026ko urtarrilean izandako lan heriotzaren ondoren, enpresaren eta instituzioen utzikeria salatu dugu.

Langileak lan osasuna bermatzeko eta laneko eskubideak hobetzeko borrokan murgildu dira, arrazismoa salatu eta euren egoera hobetzeko bidean. Zentzu horretan greba eta mobilizazioak izan ditugu enpresak.

Bizkaiko etxebizitza komunitarioetan, zaintza sektoreko lanaren feminizazioarekin batera, langile migratu eta arrazializatuen presentzia oso handia da. Aurre egin diegu egoera bereziki larriei, zeinetan bazterkeriarako eta prekaritaterako arrazoi izan diren langileen egoera administratibo irregularra, jatorria eta arrazializazioa.

KFCren eta ostalaritzako kate handien kasuan, behin baino gehiagotan salatu dugu estatalizazioa lan baldintzak okertzeko erabiltzen dela. “Restauración Moderna” hitzarmen estatalaren bidez, besteak beste, KFCk eta McDonald's-ek lurraldeko ostalaritzako hitzarmenak saihesten dituzte, soldadak eta eskubideak nabarmen murriztuz. Ez da kasualitatea langile migratu eta arrazializatu gehien kate horietan biltzea; hain zuzen ere, langileen prekaritatea baliatzen dute baldintza okerragoak ezartzeko eta antolakuntza sindikala zailtzeko.

Beti Aingeru arrantzontzian langileek beren oinarritzako eskubideak defendatzeko ekintzak egin zituzten: arrantzaleek lan egiteari utzi zioten armadorearen mehatxuak, irainak eta tratu txarrak jasaten ari zirelako. Arrantza sektorean langile migratu eta arrazializatuak pairatzen duten lan-esplotazioaren eta arrazakeriaren adierazpen argia izan zen. Izan ere, migratua izatea funtsezko faktorea da euren zaurgarritasuna areagotzeko; administrazio-egoeraren, hizkuntza-oztopoen eta sektoreko kontrol faltaren ondorioz, patronalak botere harreman desorekatuak ezartzen ditu. Beraz, ezinbestekoa da langile migratuen antolakuntza sustatzen jarraitzea, eta ikuspegi antirrazista gure ekintza sindikalean txertatzen jarraitzea.

Gatazka horiek guztiek elementu komun bat dute: prekaritatea ez da ausaz gertatzen, egiturazko arrazoiengatik baizik, eta arrazializazioaren ondoriozko botere harremanek lan eremuan oraindik eta indar handiagoa hartzen dute. Horren aurrean, LABek sindikalismo antirrazista garatzeko apustua egin du, langile migratu eta arrazializatuak subjektu politiko eta sindikal gisa aitortuz, haien antolakuntza sustatuz eta lan eskubideen aldeko borroka arrazakeriaren aurkako borrokarekin uztartuz.

Logika horrekin heldu dio LABek migranteen ezohiko erregularizazio prozesuari, aukera politiko eta sindikal gisa ulertuta. Langile askori aholkularitza zuzena eman die, prozesua errazteko baliabideak antolatu ditu eta erregularizazioa lan esplotazio arrazistari aurre egiteko lehen urrats gisa kokatu du, langile migratuen antolakuntza eta eskubide osoak helburu dituen estrategia antirrazistaren barruan.

ESTATALIZAZIOARI AURRE EGIN LAN HARREMANETARAKO MARKO PROPIOA INDARTUZ

Azken urteotan LABek salatu du lan harremanen estatilizazio prozesuak ez duela etenik izan. Euskal Herriko hitzarmenen lehentasuna aitortu den arren, patronalak lan harremanak estatilizatzeko eta, ondorioz, prekarizazioa areagotzeko bide berriak bilatu ditu.

Horren adibide argia dira ostalaritzan edo merkataritzan jarduten duten enpresa handientzat sortutako estatu mailako hitzarmen espezifikoak. ARTE patronalaren eta ostalaritza-kate handien bidez (KFC bezalako enpresetan, esaterako), sektoreko lurralde hitzarmenak saihestu eta baldintza okerragoak ezartzen dituzte, ARTEren kasuan EAE kanpo geratu den arren. Horrek kalte bikoitza eragiten du: alde batetik, enpresa horietako langileek soldata eta lan baldintza okerragoak dituzte; bestetik, sektore bereko gainerako enpresek ere presio handia jasaten dute, lan baldintzak beherantz parekatzeko arriskua handituz.

Testuinguru horretan, aurtengo ikasturtean, estatilizazioari aurre egiteko urrats garrantzitsuak egin dira, urte luzeetako mobilizazio eta borrokari esker.

Lehenik eta behin, Arabako zahar egoitzetan lehen hitzarmen propioa lortu da. LABek ez zuen sinatu, hitzarmena ez zitzaileako aplikatzen sektoreko langile guztiei, baina ezin uka daiteke langileen borrokak patronala mugiarazi eta negoziazioa desblokeatu zuela.

Bestetik, Nafarroako zahar egoitzetan historian lehen sektore hitzarmena sinatu da, urteetako borrokaren ondoren, eta langileen lan baldintzetan hobekuntza nabarmenak ekarri ditu.

Era berean, kolektibitateen sektorean lehen hitzarmena lortu da, urte askotan aldarrikatu izan duguna, eta Bizkaiko grafikagintzan ere lortu da hitzarmen sektoriala berreskuratzea, estatilizazioaren aurrean lurraldeko negoziazio kolektiboa indartuz.

Lorpen horiek erakusten dute patronala mugiaraztea posible dela antolakuntzaren eta borrokaren bidez. Estatilizazioaren aurkako borroka, hala ere, ez da amaitu. Kimikaren sektorean, Enplegu Zentro Bereziatan eta beste hainbat esparrutan negoziazio kolektibo propioa defendatzen eta lan baldintzak Euskal Herrian erabakitzeko lanean jarraitzen du LABek.

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEFENTSAN BORROKAN

Ikasturte honetan, euskararen aurkako oldarraldi judizial, politiko eta mediatikoaren aurrean, LAB erantzun sindikal eta soziala antolatzen ibili da. Bereziki enplegu publikoan euskararen ezagutza eta herritarren hizkuntza eskubideak defendatu ditu, euskaraz lan egiteko eskubidea aldarrikatuz.

Norabide horretan, LABek beste sindikatu batzuekin batera maiatzaren 9ko **"Euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidearen alde"** manifestazioa deitu zuen. Mobilizazio horrek milaka lagun batu zituen eta enplegu publikoaren legearen inguruko eztabaidan euskararen ofizialtasun osoa eta hizkuntza eskubideen bermea erdigunean jartzea lortu zuen.

Bide horretan jarraituko dugu datozen hilabeteetan ere. Alde batetik, euskararen aurkako oldarraldiari erantzun sindikal eta soziala indartuz; bestetik, sektoreetako negoziazio kolektiboan hizkuntza eskubideak txertatzen eta defendatzen. Horren adibide da UDALHITZeko negoziazioa eta borroka, non euskaraz lan egiteko eta zerbitzua euskaraz emateko baldintzak aldarrikapen nagusietako bat diren.

LAN OSASUNA BORROKA EREMU

Ikasturte honetan, lan osasuna LABen jardun sindikalaren ardatz nagusietako bat izan da. Laneko heriotzen eta istripu larrien aurrean mobilizazio iraunkorra egin dugu, beste sindikatu batzuekin batera, eta erreferentziazko eragile bihurtu gara ezbehar horien benetako arrazoiak salatzen.

Lan osasuna, gainera, hainbat gatazka sindikalenerdigunean kokatu da. Estaños Matienan, Huertade Peraltan zein Gureaken argi geratu da arrazializazioak edo aniztasun funtzionalak eragiten duen egiturazko desberdinkeriak eragin zuzena duela laneko osasunean. Gauza bera gertatzen da sektore feminizatuei dagokienean ere; genero-desberdintasunek arrisku handiagoa, prekaritate handiagoa eta babes neurri eskasagoak eragiten dituzte.

Hainbat enpresatan izan da lan osasuna langileak mobilizatzeko arrazoi nagusia: Arcelor Sestaon, CAF Lebarion, Zalain transformadosen, RTA-n (Revestimientos de Tuberías y Accesorios), Huerta de Peraltan, Fronerín, Xilema Fundazioan, Gizain Fundazioan, Gautenan, Sanitas Loramendin, Garaíen, Urbaserren eta Ekobalen (Zubietako erraustegia), Bizkaiko suhiltzaileetan, Aludiumen, Matia Fundazioan, Dbusen.

Aldi berean, muturreko beroaren aurkako protokoloak eta prebentzio neurriak indartzeko lan egin dugu, klima larrialdiaren ondorioei lan mundutik eta lan osasunaren perspektibatik ere erantzunez. Bide horretan, Osakidetzan beroaren protokoloa abian ipini dugu langile eta erabiltzaileen bizi baldintzak duintzeko. Era berean, enpresetan IAT ereduak ikuskapen teknikoak bultzatu ditugu makinaren segurtasuna hobetzeko.

Ekintza sindikalak prespektiba juridikoa hartu du kasu larri batean; Aranoko Maderas Justa enpresan, hain zuzen. Lan arrazismoz zipiritindutako istripu larri baten aurrean, enpresaria prozesu penal batean auzipetu dute, LABek salatu ostean.

Bestalde, ikasturte honetan patronalak absentismoaren inguruan eraiki duen ofentsibari aurre egin diogu, eta langileen eskubideen defentsan kontakizun hori deseraikitzen jardun dugu. Patronalak absentismoaren aitzakipean langileon eskubideak murrizteko estrategia abiatu du. Izan ere, absentismotzat jotzen ditu eskubide diren egoerak; hala nola, laneko zein gaixotasun arrunteko bajak, ordu sindikalak, lizentziak eta baimenak (gurasotasunekoak, besteak beste). Estrategia horren baitan, gobernuen ezinbesteko laguntzarekin, osasungintza publikoa indartu ordez, mutualitateei eskumen gehiago eman nahi izan dizkiete bajak murrizteko helburuz, eta enpresa zein sektoreko hitzarmen kolektiboetan baja osagarrien inguruko atzerapausoak inposatzen saiatu dira. LABek, ordea, ofentsiba horri aurre egin dio lantokietan, negoziazio kolektiboan eta eztabaida publikoan, langileen eskubideak defendatuz.

ENPLEGU INDUSTRIALAREN DEFENTSAN BORROKAN

Enplegu industrialaren galera izan da ikasturteko kezka nagusietako bat. Aiaraldeak urteak daramatzana desindustrializazioaren ondorioak pairatzen, eta gogor erasotu dute aurrean ere, Maderas de Llodio eta Tubos Reunidos enpresetako gatazkekin. Beste herrialdeetan ere egoera ez da xamurra izan, Papresan besteak beste, enplegua arriskuan egon baita.

Egoera horren aurrean, langileek borroka eredugarriak egin dituzte, greba eta mobilizazio ugariren bidez. Borroka horiek emaitzak ere eman dituzte: Maderas de Llodion kaleratzeak atzera botatzea lortu da, Tubos Reunidosen EREa erretiratzea eta Papresan enpleguari eustea lortu da. Garaipen horiek erakusten dute antolakuntzak eta borrokak patronala mugiarazteko gaitasuna dutela.

LABen ustez, enplegu industrialaren defentsak ezin du enpresaz enpresa ematen den erantzunera mugatu, ordea. Euskal Herriak trantsizio ekosoziala ardatz izango duen industria politika berri bat behar du. Horrek esan nahi du eraldaketa industrial planifikatzea, merkatuaren logikaren ordez interes soziala lehenestea

eta baliabide publikoak enpleguaren, enpleguaren kalitatearen eta deskarbonizazioaren zerbitzura jartzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da jabetza eta kontrol publikoaren papera indartzea, baita langileek erabaki estrategikoetan parte hartzea ere.

Behar dugun industria politikak kalitatezko enplegua, herrian errotutako industria eta jendartearen beharrei erantzuten dien eredua sustatu behar ditu.

DESKARBONIZAZIO PLANAK INDUSTRIAN

LABen ustez, ekintza sindikalaren lehentasuna gatazkei aurrea hartzea da, kaleratzeak edo lan-doikuntzak gertatu aurretik esku hartuz. Gaur egun industria eraldaketak deskarbonizazio planen, inbertsio teknologikoen, ekoizpenaren berrantolaketaren eta enpresa estrategien bidez erabakitzen dira. Horregatik, langileen parte hartzea funtsezkoa da.

Helburu horrekin, ikasturte honetan deskarbonizazio prozesuei lotutako lanketa espezifikoak garatu ditugu Mercedes (Gasteiz), Tubos Reunidos (Aiaraldea), Viscofán (Zangotzaldea), ArcelorMittal (Goierrri), Papresa (Oarso-Bidasoa) eta Cementos Lemona (Hego Uribe-Arratia) enpresetan. Lanketa horien bidez, emisioak murrizteko planetan enpleguaren gaineko eragina aztertzea eta enpresa batzordeek plan horien edukia negoziazio kolektiboaren bidez eztabaidatzeko eta eragiteko gaitasuna indartzea bilatu da.

Esperientziak erakusten du enpresa askok deskarbonizazioa lan doikuntzak justifikatzeko erabiltzen dutela, enpleguaren etorkizunerako bermerik eskaini gabe. Cementos Rezolaren kasuan, adibidez, trantsizio ekologikoa inbertsio eta garapen aukera izan beharrean, lanpostuen amortizazioa eta jardueraren murrizketa justifikatzeko baliatu zen.

Antzeko egoera bizi du automozio sektoreak. Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteen erabilera gero eta ohikoagoa da, eta askotan malgutasun neurri iraunkor bihurtu dira, diru publikoaren bidez enpresen interesak babestuz, langileen ziurgabetasuna areagotzen den bitartean.

Horren aurrean, LAB ekintza sindikala indartzen ari da. Horretarako, enpresei etorkizuneko planen eta aldaketa teknologikoen inguruko informazioa aldeztu aurretik ematea exijitzen ari gara, eta negoziazio kolektiboan lanaldiaren murrizketa, industria militarrean dibertsifikazioaren aldeko neurriak eta industria eredu berriaren inguruko edukiak lantzen.

SEKTORE MAILAKO BORROKAK

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA- TUA	ARRAZIALI- ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Araba						
Ostalaritza	Ostalaritza	Ez	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Elikadura	Merkataritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Garbiketa	Garbiketa	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Zahar Egoitzak	Sozioko- munitario	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Esku Hartze Soziala	Sozioko- munitario	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Industria	Zurgintza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Industria	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Industria	Ardogintza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita

Bizkaia						
Industria	Arrain Kontserbak	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Metal Merkataritza	Merkataritza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Eraikin Eta Lokalen Garbiketa	Garbiketa	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ikuztegiak	Ikuztegiak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Gasolindegia	Gasolindegia	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Salgaien- Garraioa	Garraioa	Ez	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Elikagai Merkataritza	Merkataritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Industria	Grafikagintza Bizkaia	Erdia	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA- TUA	ARRAZIALI- ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
--------	----------	------------------	----------------------	-----------------------------------	--------------------------------	--------

Gipuzkoa

Salgaien Garraioa	Garraioa	Ez	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Gasolindegia	Zerbitzuak Varios	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Zahar Egoitzak	Sozioko- munitario	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita

Nafarroa

Biltegiak		Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Merkantziak	Garraioa	Ez	Bai	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ehungintza	Merkataritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Teknikariak		Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Kolektibitateak	Ostalaritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Bulegoak	Bulegoak	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Optikak	Merkataritza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	
Metal Merkataritza	Merkataritza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	
Zahar Egoitzak	Sozioko- munitario	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Desgaitasuna	Sozioko- munitario	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Lanbide Heziketa	Hezkuntza	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Hezkuntza Publiko Osoa	Hezkuntza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Jimeno Kanpora	Irekita
Funtzio Publiko Osoa		Ez	Ez	Grebak	Estatutoa	Irekita
Funtzio Publiko Osoa		Ez	Ez	Mobilizazioak	Euskara	Irekita
Industria	Grafikagintza	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Industria	Iturgintza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA-TUA	ARRAZIALI-ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
EAE						
Kudeaketa Zuzena	Ostalaritza	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Eskola Garraio	Ostalaritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Kolektibitateak	Ostalaritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Teknikariak		Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Enplegu Zentro Bereziak	Sozioko-munitario	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Etxeko Langileak	Sozioko-munitario	Bai	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Udalhitz	Udalforu	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Irakasleak	Hezkuntza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Irakasleak	Hezkuntza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Irakasleak	Hezkuntza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Irale	Irekita
0 – 3	Hezkuntza	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ikastolak	Hezkuntza	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Hezkuntza Publiko Osoa	Hezkuntza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Szk Sekotxe Guztiak	Sozioko-munitario	Bai		Mobilizazioak	Aurrekontuak	Itxita
Funtzio Publiko Osoa		Ez	Ez	Grebak	Euskara	Irekita

ENPRESETAKO BORROKAK

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA- TUA	ARRAZIALI- ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Araba						
Maderas Llodio	Zurgintza	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Tubos Reunidos	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Tubacex	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Enviser	Lorezaintza	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Sacyr	Garbiketa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Primafio	Garraioa	Ez	Ez	Grebak	Jazarpena Eta Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Crad Amurrio	Sozio- komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Beti Gizartean	Sozio- komunitario	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Afa Suhiltzaileak	Udal Foru	Ez	Ez	Grebak	Araudi Propioa	Itxita
Wec	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Fibertecnic	Kimikak	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Bakelite	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Sidenor Gasteiz	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Azolgas	Metala	Ez	Ez	Grebak	Erte	Itxita
Mercedes	Metala	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita
Shuton	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Alestis Aerospace	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Pepsi	Alkoholik Gabeko Edariak	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA-TUA	ARRAZIALI-ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Bizkaia						
Aguas De Bilbao (Linersa)	Portuko Barne Trafikoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Praktikoak	Portuko Barne Trafikoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Amarratzaileak	Portua	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Irekita
Zamaketa Lana	Portua	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Konekta	Telemarketing	Bai	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Elis Gallarta	Ikuztegiak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Elis Arrigorriaga	Ikuztegiak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Lavanindu	Ikuztegiak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Ute Bioeraikigarbi	Garbiketa	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ute Rsu Bilbogarbi	Garbiketa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Iris	Garbiketa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Kfc	Restaurazio Modernoa	Ez	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Panda	Bulegoak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Kaleratzeak	Itxita
Panda	Bulegoak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Ibersys	Prebentzio Zerbitzuak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Casino	Kasinoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Bbk Fundazioa	Aurrezki Kutxak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Tbm	Hondakinen Kudeaketa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Quincoces	Okindegiak	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita
Supermercados Champion		Bai	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA-TUA	ARRAZIALI-ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Galdakaoko Kiroldegia (Guedan)	Kiroldegiak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Usansoloko Kiroldegia (Guedan)	Kiroldegiak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Ontime (Mensajeros Del Futuro)		Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Giroa	Metal Merkataritza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Anbiotech	Arratoiak Desagerrarazteko Zerbitzua	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Smartech (Ibermatica)	Bulegoak	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Irekita
Bbk Klima	Sozio-komunitario	Ez	Ez	Mobilizazioak	Kaleratzeak	Itxita
Betion	Sozio-komunitario	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Itxita
Zelaiondo Egoitza	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Itxita
San Esteban Zahar Egoitza	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Itxita
Bfa	Udal Foru	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Bfa Suhiltzaileak	Udal Foru	Ez	Ez	Mobilizazioak	Garapen Profesionala	Irekita
Etxebizitza Komunit	Sozio-komunitario	Bai	Bai	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Aludium	Metala	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita
Ecs	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Fosroc	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Itxiera	Itxita
Arcelor Sestao	Metala	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita
Caf Lebario	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Itxita
Dascor	Grafikagintza	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Aludium	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Itxita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA-TUA	ARRAZIALI-ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Bahia Bizkaia	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Metal Group	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Itxiera	Itxita
Ziv	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Acha Orbea	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Itxita
Contenur	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Masa	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Mesa	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Maxam	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Cemosa	Papergiintza	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Irekita
Navacel	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Kaleratzeak	Irekita
Tubos Reunidos	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Caf Turnkey & Engineering	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Gipuzkoa						
Amazon Oiartzun	Garraioa	Ez	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Errauskailua (Ekobal)	Garbiketa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Beti Aingeru	Arrantza	Ez	Bai	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Estaños Matiena		Ez	Bai	Grebak	Bestelako Erasoak	Irekita
Smartech (Ibermatica)	Bulegoak	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Irekita
Hotel Amara Plaza	Ostalaritza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Kaleratzeak	Irekita
Zumaiako Hilerria		Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Itxita
Pasaia Etkez Etxeko Laguntza	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
San Juan De Dios	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA-TUA	ARRAZIALI-ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Asuncion Klinika	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Publifikazioa	Irekita
Zorroaga Zahar Egoitza	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ibaiondo	Autonomikoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Avanza	Garraio Publikoa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Emergentziak Tolosa	Anbulantziak	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Oñatiko Udalaudal Foru		Ez	Ez	Grebak	Egutegia	Itxita
Dbus	Garraio Publikoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Odol Bankua	Sozio-komunitario	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
San Juan De Dios	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	
Arcelor Olaberria	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Papresa	Papergiintza	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Itxita
Zardoya Otis	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Itxita
Sidenor Azkoitia	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Itxita
Indar	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Caf	Metala	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Estanda	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	
Arcelor	Metala	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	

Nafarroa						
Kale Garbiketa Iruña	Garbiketa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Elis		Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Iruñako Lorezainak	Lorezaintza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA-TUA	ARRAZIALI-ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Huerta De Peralta	Nekazaritza Eta Abeltzaintza	Ez	Bai	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Padre Manni	Sozio-komunitario	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
0-3 Iruña	Hezkuntza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita
Tcc Villabesa	Garraio Publikoa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Osasunbidea	Forala	Bai	Ez	Mobilizazioak	Garapen Profesionala	Irekita
Osasunbidea	Forala	Bai	Ez	Mobilizazioak	Akordioa Betetzea	Irekita
Osasunbidea	Forala	Bai	Ez	Grebak	Akordioa Betetzea	Irekita
Intia	Enpresa Publikoa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Norton Saint Gobain	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Itxita
Maier Navarra	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Irekita
Ardena	Kimikak	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita
Solidus San Andres	Papergiintza	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Zalain Transformados	Metala	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita
Arcelor Mittal (Lesaka)	Metala	Ez	Ez	Grebak	Kaleratzeak	Irekita


EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZA- TUA	ARRAZIALI- ZATUAK	ERABILITAKO BORROKA MOLDEAK	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
--------	----------	------------------	----------------------	-----------------------------------	--------------------------------	--------

EAE						
Elkar	Merkataritza	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Itxita
Eitb	Autonomikoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Eitb	Autonomikoa	Ez	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ehu	Hezkuntza	Ez	Ez	Grebak	Finantziazioa	Irekita
Osakidetza	Autonomikoa	Bai	Ez	Mobilizazioak	Negoiazio Kolektiboa	
Osakidetza- Osasun Mentala	Autonomikoa	Bai	Ez	Mobilizazioak	Eredua	Irekita
Ad. Zentrala- Jaurlaritza	Autonomikoa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Ad. Zentrala- Jaurlaritza	Autonomikoa	Ez	Ez	Grebak	Negoiazio Kolektiboa	Irekita
Lanbide	Autonomikoa	Ez	Ez	Grebak	Laboralizazioa	Itxita
Portuak	Zamaketariak	Ez	Ez	Mobilizazioak	Bestelako Erasoak	Irekita

Hego EH						
Digi	Metala	Ez	Ez	Grebak	Bestelako Erasoak	Itxita

ETXEBIZITZA EREMUKO BORROKAK

GATAZKA	HERRIA	PATRONAL IN-MOBILIARIOA	BORROKA AKTIBATZEKO GAIA	EGOERA
Zabalbide 10 eta Santos Juanes 1, 3 eta 5	Bilbo	Mazabi Gestión de patrimonios	Turistifikazioa. Eraikinetako beheko solairuetan erabilera turistikorako bideratzea.	Itxita. Garaipena. Erabilera turistikoa bertan behera.
Salburua: 208 etxebizitza	Gasteiz	VITALQUILER / ADALQUILER S.L. (ADANIA)	208 etxebizitzak babes ofizialeko kalifikazioa galtzea, eta etxegabetze edo prezio igoeren arriskua.	Irekita. Mobilizazioak
Ezkaba: 190 BOE	Iruñea	Errotabidea SL eta Catella Group	190 etxebizitzak babes ofizialeko kalifikazioa galtzea, etxegabetze edo prezio igoeren arriskua.	Itxita. Garaipena. Kalifikazio iraunkorra
Iruñerria: 507 BOE. Etxebakoitz, Sanduzelai, Arrotxapea, Buztintxuri eta Artika	Iruñea	Testa Residencial (Blackstone)	507 etxebizitzak babes ofizialeko kalifikazioa galtzea, eta etxegabetze edo prezio igoeren arriskua.	Irekita. Maizterrak antolatzen.
Alquiler Seguro enpresak kudeaturiko 500 etxebizitza	Bilbo Handia eta Gasteiz	Alquiler Seguro	Alokairu greba antolatzea higiezin agentziaren kobrantza ilegalekin, abusuzko praktikekin, eta inpunitatearekin amaitzeko	Irekita. Maizterrak antolatzen.
Benta Berri: 510 BOE	Donostia	Testa Residencial (Blackstone)	510 etxebizitzak babes ofizialeko kalifikazioa galtzea. Alokairu elkarteak urteak daramatza antolatuta, LABeko afiliatuak ere antolatzen.	Irekita. Maizterrak antolatzen.



LAB⁷
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA